

HAU → ← HAU

euskaldunon konpartsaren aldizkaia

Aste Nagusia
hurbil dago...



EKIN LANARI !!!

Kai xotxu, konpartsakide polit hori!!!

Ale honetan 4 orrialde gehiago gozatu ahal izango dituzu, batetik, konpartsak egindako hainbat ekintzei buruz mintzatuko gara, eta bestetik, oso laster egingo ditugun gauza asko aurkezten dizkizugu.

Eta gainera, sexua, drogak, eta... fandangoa!

Zer, ba? Ausartzen zara Hau-hau honekin?

Txotxi ndau 2004

Apirilaren 2an ekimen berezia ospatu genuen Indautxu Euskaltegian. Eta "ospatu" diot, ezen hasieran erakunde bion artean antolatu behar zena, hau da, Indautxu Euskaltegia eta HPHren artean, euskaltegiko ardura bihurtu baitzen. Horregatik hemendik eskertu nahi diegu Indautxu Euskaltegiko langileei eta lan egin zuten guztiei TXOTXINDAU ikaragarri hau prestatu izana.

Idea, euskaltegian sortu zen orain dela asko. Sagardotegien garaian, zergatik Gipuzkoako sagardotegi batera joan? Hau da (giputzak ez haserretzeko), zergatik gastatu horrenbeste dirua (autobusa, afaria, poteak eta abar) sagardotegi batera joateko?

Bada... bai, bilbotarrak garenez gero, "Aurten sagardotegia euskaltegira ekarriko dugu!" esan genuen, eta horrela egin genuen. Apirilaren 2an, 50 litroko sagardo-kupela eta 50 sagardo-botila baino gehiago eraman ziren euskaltegira. (Txotxindauren bukaeran.... litro bat ere ez zen geratu!!!).

Egun batzuk aurretik, euskaltegiko ikasle eta irakasleak dekorazioa prestatzen hasi ziren, marrazkiak, paperezko kupelak....Txotxindau egunean, arratsaldeko 5etan, azken ukituak ematen hasi ginen. Eta dekorazioa ondo bukatzeko baseritik ekarritako benetako sarda eta sega.

Jada gauza bat, eta inportanteena, besterik ez zen falta: kupela. Eta kupela ailegatu zen, hori bai, kupela euskaltegira igotzeko gorriak ikusi genituen. Zorionez eraikinaren jasogailua hurbil zegoen, eta pixkanaka pixkanaka horra eraman eta euskaltegira igo genuen. Kupela bere lekuan ipini eta gero, janaria prestatzen hasi ginen: txorizoa sagardotan egosi, odolostea eta gazta zatitu eta intxaurrak banatu.

Jendea heltzen hasi zen eta berehala konpartsakoez talde handia osatu genuen. Arratsaldeko 8etan eta adar baten soinuarekin batera, Txotxindau 2004 hasi zen. Denok ilaran lehenengo sagardo-zurrutada ematera hurbildu ginen. Lehenengo tragoak tanteatzeko besterik ez ziren. Hasieran jendea taldeka, lasaitasunez, hitz egiten ibili zen... Baina lau trago eman eta gero, jendea nahasten hasi zen, elkarriketak oihukatuz egiten hasi ziren eta batzuk bere eztarriak berotzen paratu ziren. Hau giro ona!!!!

Giro berezi honetan (sagardotan murgilduta), gure KAUDILLO heldu zen. Fantasiako irudia ematen zuen. Guztiok erdi mozkortuta, gure kaudillo izan ezik. Baina "espejismo"

bat besterik ez zen izan. Txorizo batzuk eta sagardo pare bi hartuta, eta guztiok berdin. Ze argazki polita! Inoiz ez dut ikusi konpartsak hainbeste jende holako ekimen batean (behintzat nire hiru urtetan konpartsan), 30en bat konpartsakide giro onean.

Gaueko 11etan edo...(ez dut ondo gogoratzen...) herri kirolekin hasi ginen. Lehenengo proba: sokatira. Eta nola ez, konpartsak talde berezia sortu zuen. Tira ta tira, iruzur bat baino gehiago talde guztietan, eta kolpe baten batekin finalera heldu ginen. Hiru tirada egin eta gero, nork irabazi zuen? HAU PITTU HAU, HAU PITTU HAU, GURE KONPARTSAK BIZIRIK DIRAU...

Hurrengo proba: harri-jasoketa. Egia esateko, hutsune ikaragarria daukat buruan, eta ez dut gogoratzen nork irabazi zuen. Gure ordezkaria Josu izan zen. Eta ziur irabazi genuela.

Azkenurreko proba: txingak. Lasterketa hau erreleboak egiten izan zen. Ikusgarriena Aritz eta Txominen txanda izan zen, biak konpartsakideak baina jokoan arerio. Probaren erdian elkar jo zuten, eta zelan ez, Txomin lurrera!

Azken proba: zaku-lasterketa. Hemen ere, Txomin izan zen HPHren ordezkaria, eta euskaltegiko Josuren bultzaden eraginez, ez dakit zenbat aldiz lurrean bukatu zen. Txominek oraindik belauneko minarekin dabil. Baina iruzurrari aurre eginez irabazi egin zuen, eta berriro HPH txapelduna izan zen.

Gaueko txapelduna: HAU PITTU HAU. Gainera arlo guztiotan, zeren edateko ere ez zen ezer geratu. Hau marka hau!!!

Herri kirolen ostean, sari-banaketa. HPHko ordezkariak merxiztako domina hartu zuten, eta txapeldunen aureskua jaso zuten. Dantzariak: Aintzane eta Iñaki (euskaltegiko ikasle bat) musika gu geuk, portzierto, oso txarto.

Kupela bukatuta zegoen, baina botilekin bete genuen berriro. Sagardotegiko giroa berriz agertu zen. Gaua ondo bukatzeko euskaltegiko dantza-taldearen erakusketa, edo behintzat saiakera, ikusi genuen. Badakizue hainbeste sagardo eta gero.... Eskudantza eta San Petrike. Hala ere, oso polita geratu zen.

Eta holan bukatu zen Txotxindau 2004. Batzuk Kafe Batzokian bukatu ziren, eta besteek nekea ezin jasan, eta etxera alde egin zuten.





ESAERA ZAHARRAK

Hau Pittu Hau, Sopelako Esaera Zaharren txapelketako finalista!



la-ia lortu genuen, laguntxo maiteak. Hurrengoan akaso irabaziko dugu!

Martxoak 27 markatzen zuen egutegiak. Egun horretan, konpartsak sagardotegia eskaintzen zien mozkortzeko, abesteko, ligatzeko, esaera topikoak botatzeko eta Marijaiaren kanta entzuteko desioan zeuden konpartsakideei.

Baina, egun horretan ere, HPHk herri honen kultura zabaltzeko eta gure jakin premia asetzeko asmoz, beste plangintza alternatiboa ere bazeukan: XI. Sopelako Esaera Zaharren Txapelketa.

Mozkortzeko, abesteko, ligatzeko, esaera zaharrak botatzeko eta Ainhoa Agirrezabalbeitia eta Sustrai Colina esaera zaharrei buruz bertsoa entzuteko desioan geunden konpartsakideok Sopelara abiatu ginen goizeko 10etan.

Hamaika ikusteko jaiok garenez, azken orduko huts egite kopuru handiak ez gintuen harritu –Fuen, Pako eta Peru, traidore koadrila!–. Bi talde izan beharrean, Igor “PJ”k, Ibon “Astrabu”k, Idoiak eta Edortak talde bat osatu eta Iñigo “Beti berandu” Zorrotzako AEKko taldea indartzera bidali zuten.

Lehenengo proban erraz garaitu zen HPH taldea: ehun esaera zaharren artean asmatu berria zein zen esatea. Zoritxarrez, garrantzirik gabeko garaipena izan zen.

Marihuana txapelketan

12 taldek parte hartu genuen hurrengo bertso triki poteoan, lau ibilbidetan bananduta.

Bederatzi bertso entzun eta esaera zaharrak asmatu behar ziren, taberna bakoitzean bat, ibilbide bakoitzetik talde bakarra klasifikatzeko. Atsotitz batzuk asmatu genituen, nahiz eta bertsolari guaitoek –*Algorta txarrikorta*– asmatutako bertsoek bat baino gehiago zurbil utzi zutela (maria landare bati buruzkoak “*Haurrak hazi, nekeak hasi*” esan nahi omen zuen).

Azken bertsoan, HPH 2003ko txapelduna izan zen *Badok Amairu* Bilboko taldearekin berdinduta zegoen. Azkenean, HPH finalerdira igaro zen.

Herri bazkaria Ander Deuna ikastolan izan zen (aurten Ibilaldia Ander Deuna eta Erromoko Betiko ikastolek antolatzen dute), kristoren giro artean. Sustrai eta Ainhoa bertsolariekin batera, Laura Mintegi idazlea izan genuen epaile. Edortak egun

osoan zehar egindako lan bakarrari –Astraburi edaria lapurtzea, Ibon ez mozkortzeko eta horrela irabazteko aukerarik izateko– utzi zion sagardotegirako bidean jartzeko.

Finalerdiak igaro eta finalera ailegatu zen HPH. Baina dagoneko patxaranaren eragina nabarmena zen barrazkiloen artean eta asmatu ezinik ibili ziren. Okerrena da *Kar Kar Kar* –Zorrotzako beste talde bat– ere ez zuela asmatzen eta, hortaz, berdinketa nahiko triste izan zela. Berdinketa apurtzeko bertso bana abestu zieten behin eta berriro, baina maila hutsaren hurrengoan izan zen. Azkenean, *Kar Kar Karrek* esaera bat asmatu eta sufrikarioa bukatu zen. Orain Igor, Idoia, Ibon, Edorta eta Iñigoren lana irabazitako lau pertsonentzako afaria antolatzean eta datorren urteko txapelketa irabazteko ikasteen datza.



Deustuko jaiak ziren (martxoaren 27a), bai na hala ere guk Lasartera joatea erabaki genuen.

Arratsaldeko bost terdiak ziren, eta Arenal ean sagardotegira joateko oso konpartsaki degutxi bilduginen.

Marijaiarengandik Sor Mariarengana



Lotsagarria zen Eguzkizalekoak gu baino gehiago izatea, eta datorren urtean gure ordaina hartu beharra daukagu. Satorrakoak ezta agertu ere. Non ote zeuden? Agian, hotza dela eta, lurpean! Guztira hogeitatu lagun abiatu ginen autobusean.

Sagardotegira joan baino lehen, Lasarten lehenengo baxoerdiak hartzen hasi ginen. Aurreko eguna nahiko gogorra izan zen batzuentzat, adibidez, Kanpirentzat, eta lehenengo tabernan kafe bat hartu behar izan zuten lotan ez geratzeko. Holan hasi

zen gure ibilbidea Lasarteko tabernetatik: Kanpik kafeina hartzen, besteok garagardo edota kalimotxo, goizean ere parrandan ibili zirenek beste motatako edariak dastatzen, eta bitartean Eguzkizaleak musean ari ziren. Sartzen ginen taberna guztiak betetzen genituen. Horrela, bi urte pasatu eta gero Marijaiaren kanta berriro entzun zen Lasartetik, eta dantzatzen hasi ginen motorrak berotzeko.

Hainbeste garagardo edan eta gero, motorrak berotuta eta erregaitanga beteta batzuk pull position

hartu genuen sagardotegira heldu bezain pronto, baina ez kupelera joateko, baizik eta korrika komunera joateko. Besteak, erregaitanga handiago daukatena, kupelera abiatu ziren sagardoaren erritualari ekiteko: edan, abestu, edan, ohiko menua jan, edan, abestu, edan, edan, edan,...

Ondo janda, hobeto edanda eta nahiko txarto abestu ondoren, Bilbora itzuli baino lehen azken tragoak hartzeko Hernanitik pasatu ginen. Hernaniko tabernak jendez gainezka zeuden, eta han apurtu zen taldearen trinkotasuna artalde desberdinak sortuz. Bus barruan gauaren kalteen lekuko izan ginen. Dirudienek sagardotegiko janaria ez zegoen egoera onean, agian intxaurrek edo batek daki zer zegoen ustelduta, baina konpartsakide batzuk oka egiten hasi ziren. Edo sagardoa izan liteke kaltebidea? Izarok, Kanpik, Pittuk eta beste batzuk jakin badakite.

Bilbotik irten ginenean, sagarren azukre-kantitate handia dela eta, aurtengo sagardoak alkohol gehiago omen duela bagenekien, baina zuku honen mirarizko ahalmenez etxera itzultzean konturatu ginen gure Pako eta Eguzkizaleko Tintxiri esker. Ordu erdiz bi konpartseroak Julia Andrews bihurtu ziren, eta moja honek Sonrisas y lágrimas filmean abesten duen ia ia erreperitorio guztia eskaini ziguten. Hunkigarria, benetan! Bitartean, beste batzuk lo seko zeuden. Eskala musikalaren notekin Bilbora heldu ginen, eta gautxoriak Deustuko jaietara joan ziren parrandarekin jarraitzeko.



Plentziako kronika

Zapatua da, goizeko bederatzia dira. RING! RING! Iratzargailua. Isil zaitez! Madarikatu hori! Ez dugu lanera edo ikastera joan beharrik. A! Baina bai Plentziako aterpetxera.

Goizeko **hamaika eta erdietan** San Nikolas geltokian geratuak gara, eta ez Plentzian Osoitzek ulertu zuen moduan. Han agertzen gara: Peru, Kanpi, Pittu, Monika, Matxupitxu eta Irantzu. Plentziarako metroa 11:50tan daukagu. Guztiok txartelarekin prest, Pittu eta Kanpi izan ezik. Lasai-lasai biak txartela ateratzen ari direla metroa galdu dugu. DIN! DON! DIN! Plentziarako hurrengo metroa hogei minutu barru aterako da...

Sartu gara metroko bagoian. Bidaia hain aspergarria izan ez dadin, Kanpi **Berria** egunkariaren txiste atala irakurtzea proposatzen digu. Beno, beno, gutxiago falta da. DIN! DON! Azken geltokia: Plentzia. Aterpetxera goaz, motxila eta lo-sakuak logeletan uztera. Osoitz (gixajoa!) aterpean gure zain. Zenbat denbora egon zen? Bi ordu gutxienez.

Bazkaldu baino lehen, pote pare bat. Aiba! Ezkontza bat eta gainera honelako egun seinalatu batean..., Gaur ere, nortzu ezkontzen dira? Ba, ez dakit. **Bazkaltzera goazenean**, Iñigo aterpetxean gure zain, Donostiatik etorrita. Bazkaldu ondoren portura goaz. Osoitzek mahai-jolas berri bat aurkeztzen digu. *Go mahai-jolasa* da. Orduak joan, orduak etorri, hor ari dira jolasten Kanpi, Osoitz, Iñigo, Pittu, Peru. Nik fitxa beltzak eta zuriak besterik ez ditut ikusten.

Erosketak egiteko ordua da. Portutik, aterpetxera goaz. Aterpetxetik bizpahiru motxila

atera ditugu gero barruan edaria sartzeko. Ordaintzeko orduan botea ipiniko dugu. Aibal! Txomin eta Iker dirurik gabe. *Ez dirurik, ez dirurik (Delirium Tremens)* taldeko abestia bezala, gogoratzen?. Hauek biak dirua ateratzera doazen bitartean, Fuen erreka ondoan gure zain. Gabi eta bere alabatxo, Maddi, etorri dira ere. Aupa aitaxo eta amatxo, zorionak!

Arratsaldeko seiak dira. Seriotasun pixka bat, bilera hastera doa. Konpartsa gora eta behera, Zirkoa gora eta behera...

Gaueko bederatzia dira eta sabelak kirkir! Kirkir! Dagoeneko egiten hasi dira. Afaltzeko ordua da!

Afaldu ondoren nora goaz? Portura, noski. Bai eta *Portua* izeneko tabernara. Fuenek, Osoitzek eta konpartsakideok sekula santan ahaztuko ez dugun taberna. Jakin nahi duzue zergatik?

Osoitz eta Fuen aurrerago zebilen, eta tabernara heltzean, kafe bi eskatu zituzten barran. Gainontzeko konpartsakideok tabernara heldu ginenean terrazara abiatu ginenez, Osoitzek hartu zituen haien kafeak kanpora irtetzeko. Baina berehala agertu zitzaion zerbitzari petrala '*nora zoazte?*' ahoan. Ezin zen kanpora irten barneko edariekin. Fuenek eta Osoitzek kanpoko prezioarekin ordainduko lituzketeela, arazorik ez zegoela esplikatzeko saiatzen ziren, baina zerbitzaria hasi zen garrasika, barnean eskatutakoa barnean edan eta ordaindu behar zela... Ulergaitza zen berak montatu zuen iskanbila.

Konpartsakideok beste taberna batera joan ginen, eta hemen bai, terrazan primeran egon ginen. Tabernatik aterpetxera bueltatu ginen, tipi-tapa.

Logeletara igo eta mutilen komunean edariak zeuden, baita Txominek ekarritako izotzak ere. Hau komeria hau! Mutilak txisa egiten zuten bitartean, neskek edaria hartzen geunden. Gora Aste Nagusia! Gora Marijaia! Kontu hori alde batera utzirik, bilera informalarri hasiera eman zitzaion, **gaueko 12ak** ziren.

Ordu bat pasatu eta gero, ez zen ezer interesgarririk esan. Orduan, Joseba, Aritz eta Izaro Bermeoko arrain-azokara joan ziren. Oraindik ez digute kontatu Namibiako bi neska eta mulatitoarekin izandako pasadizoak!


Ordu bat t'erdietarako gauzak berotzen hasiak ziren. Kanpi eta Fuen sexualapikoaz eztabaidatzen hasi ziren. Sexua frogatu behar denez, hara non, Kanpi eta Txomin posturak frogatzeko boluntarioak aurkeztu ziren. Usue eta Osoitz txokolatea dantzan. Bat-batean Marijaiaren abestia Txominen mobilean, Nor zen? Aintzane. Mobiletik mobilera Aintzeneri bi argazki bidali genizkion.

Hortik gutxira Kanpi, Iker, Matxupitxu eta Txomin lotara joan ziren. Osoitz ere bai lo, Tutankamonen hilobiaren antzera. Beranduago Fuenek koltxoia pasilara atara behar izan zuen Kanpiren zurrungak jasaten ez zituelako. Gela batean, Kanpi, Usue eta Irantzu lotan, beste gelan Matxupitxu, Iker, Iñigo eta Txomin. Nortzu falta ziren? Hiru mosketeroak. Barkatu, bi mosketeroak eta printzesa: Pittu, Peru eta Monika (Irantzu *reinona* da). **Goizeko zortzi eta erdia**k, lauok gosaltzera joan ginen. Gosaldu ondoren lotara joan ziren, eta Irantzu besteak esnatu nahian, gosaltzeko ordua pasa ez zedin.

Gosaldu ondoren hondartzara joan ginen. Antza denez, Kanpi eta Txomin bainatzeko asmoa zuten, baina gero ez ziren bainatu. Hondartzan triatloia egon zen. Animo, neska-mutilak! Gorlizeko tabernan lasai-lasai jesarrita egon eta gero, aterpetxera bueltatzeko bidean hara nortzuko agertu ziren, Pittu, Peru eta Monika (beraien ispirituak dantzan). Hondartzan mini-bilera egin ondoren, aterpetxera bazkaltzera bueltatu ginen.

Eguzkitan egoteagatik Fueni besoak erre zitzaizkion, eta Irantzuri ere bai. Eta bazkaldu baino lehen, nola ez, Go partida bat. Bazkaldu ostean Peru aterpetxea ordaintzera joan zen. Orduan, motxilak hartu eta garbiketa egin genuen. Aterpetxeko gelak giltzez zarratu genituen, eta giltzak bueltatu eta gero... bat-batean Osoitz eta Iker desagertu egin ziren! Non ote zeuden? Aterpetxe barruan giltzapeturik egongo ote ziren? Ez, tabakoa eroatera joan ziren!

Beno, asteburua taberna batean bukatu genuen, Go jolasaren azken partida jolasten eta beste batzuk zerrendaren *garbiketa* egiten. Bat-batean Iñigok "*Ea nor kentzen duzuen zerrendatik, e?*" **Arratsaldeko lauak ziren**, eta etxera joateko ordua zen...



I b i l a l d i a a l a *edanaldia?*

Goizeko hamaiketan konpartsakoak San Nikolaseko metrogeltokian geratu dira. Ni ordu horretan oraindino lo! Esnatu, gosaldue eta eguerdiko ordubateko metroa hartu.

Din! Don! Din! Areeta. Areetan Ibilaldiaren ibilbidea hasten gara. Tipi-tapa, tipi-tapa. Ibilbidera sartzeko sarreran borondatea ematen dugu. Bisera bi eta pegatinak ematen dizkigute.

Lehenengo gunera heldu gara: Ikastola. Tipi-tapa, tipi-tapa. Bigarren gunea: txiki-park. Tipi-tapa, tipi-tapa. Hirugarren gunea: bertso-

laritza. Tipi-tapa, tipi-tapa. Laugarren gunea eta alboan txosnak. Hara non, gune honetan konpartsarekin topo egiten dugun.

Momentuz ez daude mozkorturik, baina bai gutxi lo egindakoak; haien artean: Pittu, Txomin, Jabi, Gartzi, Fuen, Monika, Kanpi, Peru...

Katxiak gora eta behera. Katxiak salgai, merke, merke, zortziehun pezetatan (eurotan ez dakit zenbat diru den, galdeiozue Kikeri), kar, kar, kar...

Urrunetik konpartsakoekin egotera Amagoia, Nora, Ziortza, Leire eta Miji hurbiltzen dira.


la gehienak konpartsaren kamiseta jantzita, eta Irantzu bere niki *fashion-fashionarekin* (Kanpiren iritzi). Bitartean, Txomin ekainaren 19rako boletoak saltzen. Euro bat besterik ez, hau merkealdi hau!

Monika, argazki kamera eskuan hartuta, argazkiak egiten, klik, klik. Aiba! kontzertua hastera doa: *Txape!Punk!* Kanpi eta Astrabu lehenengo hilarara dantzatzera doa, gazte-txoak bezala, hori bai *umorie!* Baina nork darama botea? Joder, Astrabu!

Monika botea berreskuratzerako doa, animo Monika, bigarren aldiz botea eramaten duzula. Etengabe katxiak gora eta behera. Bostgarren gunera goaz, gero seigarren gunera eta azkenik zazpigarren gunera (gazte-gunera). Bertan Ken Zazpi. Zenbat jende dagoen gune honetan! Hau bai gaztedi hau!

Zazpigarren gunetik laugarren gunera bueltatzen gara, txosnetako *lasaitasunera*. Baina non daude Txomin eta Kanpi? Kanpik ligatu ote du? Astrabu txisa egitera joan al da? Txisa bakarrik edo zerbait gehiago? Beno txosnetatik bueltatxo bat eta Peru, Jon eta hirurok metroa hartzerako goaz. Han uzten ditugu besteak: Pittu, Monika, Kike eta Fuen.

Agur eta hurrengora arte!



hau sexu-lapiko hau

Erabateko besarkada

Bikotea zutik eta biluzik dago aurrez aurre. Neska mutilaren gainera igotzen da, lepotik besarkatuz eta hankekin inguratuz.

Mutilak ipurditik eusten dio, eta bide batez, bere gorputzera gehiago hurbiltzen du.

Erabateko besarkada sexu patsionala eta kreatiboa da, gorputzeko kontaktua oso handia izanik. Sarketa bi motatakoa izan daiteke: goitik behera hala atzetik aurrera. Bikoteak sarketa-mota bakoitzarekin sentitzen duen gozamenaren arabera egingo du aukeraketa.



Sinestezina. Uste dut ligatu egin dudala txosnakoarekin. Ordu erdi barru irtengo dela esan dit, eta hemen nago, liluratuta, denbora igarotzeko txosnatik ateratako garagardo bero bat edaten, itxaroten...

Nere zain egon da. Zein erakargarria den!!! Hitz egiten di dan bakoitzean babal ore modukoa geratzen naiz berari so. Aho polit bat du, eta aho polit horrek nere bizkarratik kosk egiten izatea gustatuko litzaidake. Berba egitean asko mugitzen ditu eskuak, eta neure gorputzatik txango batean asmatzen ditut esku horiek... Egia esan, berokeriak (edo berotasunak?) hartzen nau. Hau gorputzar hau!

*Ausartu gara, ezta?
Muturtxoa jaten diogu... elkarri.*

Oraintxe ez du barbarik egiten, baina eskuak mugitzen jarraitzen du... nere kami seta azpitik... Ai, ene. Zori onez, Hau-hauako sexu-lapikoan oso ikasgai interesgarri batzuk agertzen dira; bestela ez nuke jakingo zer egin...

Baina zer da hau?, mutil eta neska baten arteko estaldura besterik ez da aipatzen konpartsak egindako aldizkarian;

beraz, aho-politdunari eta neri ez datozkigu han agertzen diren aholkuak (edo gorputz-jarrerara bilduma), kar, kar, kar... Aizue! Bala zenekiten bikote guztietan ez direla beti izaten emakumezko bat eta gizonezko bat?

Eta bikote guztietan ez dira beti zirkoko jenderik izaten: Mutil indartsuetan Indartsua eta itzal handiko Neska Orekarria!!!

Demagun emakumezkoa 50 eta 60 kilo arteko astun dela. Hala eta guztiz ere, 50 edo 60 kiloko txinga hartzeko eta mugitzeko... (zenbat aldiz?) gora eta behera, kanpora eta barnera... Indarra eta ganora behar dira, ezta?

Hori bada txinga galanta!

Gainera, badaude kilo gehiagoko txinga asko, eta txingalari makalak ere bai...


Bai, eta badaude txitxil-sarpena baino sexualite gehiago ere!

Agian ikastaro bat antolatu behar izango dugu...

Tamal ez ez di tugu irakaslerik aurkituko INON. Penagarria, ezta?



...DROGAK...



Gizakiak betidanik erabili ditu drogak, bai sendabelar gisa, zein ospakizunetarako.

Egun batez kontzientzia kolektiboa ardotan nahasteko aitzakiak ez zaizkigu inoiz falta izan: uztak, solstizioak, jaiotzak zein heriotzak,...

Betidanik ere, esaterik ez dagoena esateko, kontzientzia nahasteko, errealitatetik ihes egiteko, edo besterik gabe ondo pasatzeko erabili direnean, drogek pentsaera puritanistaren eraso pairatu dute.

Gora akelarreak!

Santutasuna sufrimenduan oinarritutako erlijioak bere kultura inposatzeko, eliza katolikoak jaiak santifikatu zituen eta akelarreak debekatu. Antzinako euskal gizarte matriarkala patriarkala bihurtzeko emakumeei euskal jakintza lapurtu zieten, sutan. Horien hutsunea gizonezko medikuek eta apaizek bete zuten kultura arrotz baten bidez.

Estatu Batuetako puritanistak mexikarrei eta beltzei egozten zizkieten krimenak eta gizar-tearen dekadentzia morala, eta euren portaera gaiztoaren errua erabiltzen zuten drogarri leporatu zioten.



Berez, mexikarren eta beltzen arima salbatzea ezinezkoa izanik, marihuana debekatuz gutxienez haur zuriak intoxikaziotik salbatu nahi zituzten.

Oligarkia zuriak puritanisten mezuan bekatu kontzeptuaren aurpegi berria aurkitu zuen: DROGA, singularrean, maiuskulaz.

Eta honen aurkako guda, gehiengoak kontrolpean mantentzeko eta herrialdeak erasotzeko inperioaren betebeharrak artifiziala bihurtu zen, gurutzada, aitzakia.

Laurogeigarren hamarkadan heroinak sortutako menpekotasuna, ordea, inperioaren tresna bihurtu zen Euskal Herrian.

Hau Pittu Hauk bere sorreran ez zuen txosnan alkoholik saltzen; bakanal erdian zukuak saltzen zituen konpartsa zen gurea.

Poliziak era errazean lortzen zuen. Heroina merkatuan birsartuz eta honen bidez lortutako diruarekin botereari aurre egiten zieten elementu arriskutsuen

aurka eraso armatua prestatzen zuten.

Laurogeigarren hamarkadan ere Bilboko Jaiak jaio ziren, Bilboko mapamundiko uzta ospakizunik koloretsuena, ardo kubaten bakanala.



Hau Pittu Hau sorreratik berezia da (Ze arraro!). Ez soilik lehen konpartsa euskalduna zelako, Hau Pittu Hau bere sorreran ez zuen txosnan alkoholik saltzen, bakanal erdian zukuak saltzen zituen konpartsa zen gurea. Horrek ez zuen luze iraun, laster apuntatu zen marrazkiloa drogen negoziara (ardo kupelari begiratzea besterik ez dago harrera baduela ikusteko).

Hau Pittu Hau bere sorreran ez zuen txosnan alkoholik saltzen, bakanal erdian zukuak saltzen zituen konpartsa zen gurea.

jada laguntza apur bat behar dutenen droga da. Berriz, kubaten orde

berriak. Arrantzale askok **haxixa** erretzen zuten eta lagunentzat ekarri ere, erloju, irrati eta beste opari eta enkarguekin batera. Etxeko marihuanaren uzta datorrenean lagunentzat opari gisa doa, patxarana eta piperrekin, beste bi droga arriskutsu.



kalimotxoa hartzen dutenek azeleragailua zapaltzeko nahiago izaten dute **speeda, anfetamina.**

Orain arte marihuana etxean landatzea edo mongiak hartzea ez zegoen legalki oso ondo definituta, baina PPK 2004ean jada beste ehundaka sendabellerrekin batera zerrenda beltz batean sartu ditu. Hauek landatzeko edo izateko baimen berezia izan beharko da, baimen hauek, noski, industria farmazeutikoari emango dizkiete.

Eta beste drogak?

Drogaren guda aurrera darrai eta erregina berria **kokaina** da, haur itxurako printzesa txuria. Politikari, sukaldari eta Bilboko jaietan irauteko




Ezberdin sentitzeko **pilulak** ere jaten duenik badago, beste batzuk, koloreetan galtzeko **tripiak** jaten dituzte, **LSDa**, sexu-iraultzaren droga. Baina akelarretako jakintza ahoz aho pasatzen joan denez, euskal tripiak aspalditik bagenituela konturatu gara, eta **mongiak** edo beste-lako ondoekin erratzik gabe hegaz doaz batzuk, mendira joan diren seinale.

Marihuana edo **haxixa** euskal gizartean ez dira



Espania espainiarrentzat, drogak laborategian eta txosnak ostalarientzat, hauek dena ordenatu nahi dute. Memeloak! Jai dute! Gora akelarreak!



...ETA FANDANGOA!!!

Bazen behin dantza ikastaro liluragarri bat, eta polita baino

politagoak ziren ikasleak ezin hobeto aritzen ziren dantzan...

Hortxe duzu *fandangua*, geure *gustukua*...

Ikasle hauexek artista hutsak zirela eta, haien bizitzak interesgarriak ziren, batez ere, dantza maisuarena: dantzari leuna eta *glamour* handikoa, baina zorrotz-zorrotza... "*Ospea nahi duzue, baina ospeak asko balio du eta honela hasiko zarete ordaintzen, zuen izerdiaz*"...

Gogoratzen duzue? Jakina, geure Leroy maitea gogoan dugu!!!

(Remember my name, Fame, I wanna live forever...)

Ez naiz 'Fama'ri buruz mintzatu. Gogo handia badut, ez pentsa, baina agian beste egunen batean egingo dut hori; oraingoan, Hau-hau ale honetarako dagokidan gaia dantza ikastaroa da, bai, baina ez ikastaro hori, baizik eta Indautxuko Euskaltegian antolatutako euskal dantza ikastaroa, Aintzaneke irakatsi diguna, alegia.

Aintzaneke zer-nolako dantza polita eta interesgarriak irakatsi dizkigun kontatuko dizuet: martxoaren amaie-

ran hasi zen ikastaroa, ostiralero, seietatik zazpi eta erdiak arte. Hamar bat ikasleko taldea izan da eta oso etekin handiak lortu ditugu.

Lehenengo egunetan **biribilketa** ikasten hasi ginen (Donostiako lagun baten ustez, Gipuzkoan ez dute biribilketarik egiten, eta berak esaten duen legez, bizkaitarrok beti ibiltzen gara "en alegre biribilketa". Egia ote da?) **txulalari** (ipurdia gora, ipurdia behera), eta guk esaten diogun "tiantetitotote-titeto...", hau da, umeentzako **esku dantza** (Txominen gogokoena).


Poliki-poliki pausu apur bat zailagoak egiten ausartzen ginen, Ziortzari izugarri gustatzen zaion "kabalitoa"rekin, hain zuzen. Zalditxo horrekin **Lantzeko inauterietakoa** hasi ginen ikasten (jiraka eta jiraka ibiltzen gara dantza honetan, Peruren zoritxarrerako) eta **San Petrike** (inoiz ez dugu amaieran egin behar den kakaranzuloa egiten. Behin erromeria batean mutil bat ikusi nuen kakaran-

zuloa egiten, baina gehienek gure moduan egiten zuten, hau da, *bueltie* eta kitto).

Aintzaneke irakatsi zigun **Kolpe, kolpe, kolpeka** (josi eta josi bi zapata...) pausuarekin erraz-erraz ikasi genuen zazpi jauziak egiten. Baina garaia zen, Aintzaneke ustez, benetako euskal dantza ikasteko, eta beraz, **fandango**arekin gure alaitasuna bukatu eta lan gogorra hasi zen. Dantza ikasleona lana aurrera zihoan **arin-arin** deritzonarekin (asmatzen duzue "*arin-arin*" izenaren zioa?) eta oraingoan, honaino heldu gara.

MILA ESKER, AINTZANE.

Ospea ez dugu aurkituko (ezta bilatu ere), hori ziur, baina zein ondo pasatu dugun! Etorri ez zaretenek Aste Nagusiaren erromerietan dantzan ikusiko gaituzue, irakasle galantaren eroapen handiari esker ikasi ditugun dantza guztiak praktikan jartzen, **eta geure ganora irrikatuko duzue**, kar, kar, kar.





HAU ZIRKO HAU

Jai ki 2004

Ijitoek ez omen dute nahi hasiera ONA DUTEN seme albarik. JAIKI-k, Euskal Herriko jai batzordeak eta eragileak batu nahi zuen jaiak, ere ez zuen hasiera ONIK IZAN.

Alde batetik, antolaketa txarra egon zen, eta bestetik, ekainaren 19an eguraldi negargarria egin zuen. Ez da oraindik kritikarako sasoi a (baina helduko da momentua!!!), lan egitekoa bai zik. Hor dugu Aste Nagusia, hilabete bat baino gutxiago falta da, eta lan asko dugu egiteko...



JAIKItik gure konpartsa indartuta atera da. Hau Pittu Hau-ko kideek oso erantzun ona eman zuten ekainaren 19an. Berrito erakutsi dugu konpartsa bat garela. Gainera, lan egitea eta ondo pasatzea bateratzen badakigula frogatu dugu.

Azkenik, Hau Pittu Hau-ren kontuak aurrera eramaten gero eta jende gehiago konprometitu egiten dela ikusi dugu.

ZORIONAK ETA ESKERRIK ASKO GUZTIO!!!!

Beste aldetik, badaude gurekin batera lan egiteko prest dauden beste konpartsa batzuk, elkartasunez eta laguntasunez. Konpartsa horiek, gainera, gero eta gehiago euskaraz hurbiltzen zaizkigu.

Hori da, azken batean, merezi duena. **Jendearen arteko laguntasunak eta elkartasunak** bihurtzen gaituzte herri, eta hori ezin da diruz erosi. Horrela eraiki dugu Aste Nagusia eta hori da Jaien inguruko herri mugimendua eraikitzeko eta indartzeko bidea. Ekin lanari!!!

EGUNEKO KRONIKA:

Goizeko 11etan, Indautxuko herriko tabernan konpartsa prest zegoen. Han bertan hogeiren bat batu ginen.

Orgatxo bat iratzeekin dekoratu genuen eta horren gainean 35 litroko kupela bat jarri genuen. Horrela, ondo hornituta, Bilboko Kale Nagusira abiatu ginen.

Kale Nagusian txotxa zabaldu genuen, eta kamara guztiak etorri ziren gure orgatxoari argazkiak egitera eta telebistan ateratzera. Gure kupelak kriston arrakasta eduki zuen. Pixkanaka-pixkanaka kalejira aurrera joan zen. Saltoka eta dantzari, kanpotik uretan blai eta barrutik sagardotan blai, Areatzara heldu ginen. Ibilbide horretan sagardoa bukatu zen. Pregoia entzun eta gero, Zazpi Kaletatik poteatzera joan ginen. Oraindik eguerdia zen eta jendea jada poz-pez zegoen.

Taberna guztiak bisitatu ostean Etxebarria parkera joan ginen txandak egitera. Eta hau izan zen konpartsakide batzuen hondamena. Tabernari asko eta jenderik ez. Konpartsakideak denbora pasatzeko mozkortu ziren, ezta, Txomin??? Hainbeste ordu, hainbeste sagardo, hainbeste kalimotxo... Zelako mozkorra!!!!

Txandak bukatzean konpartsa guztiz sakabanatuta zegoen. Etxera joateko ordua ailegatu zen, nahiz eta mozkortu batzuk hortik geratu...

ASTE NAGUSIKO PROGRAMAZIOA



[EUSKALGUNEko
kontzertuak]



astelehena

Amai ur

asteartea

Kukuma

Mal abari stak

Txakunpa

asteazkena

Txatunga Bembe

Obrint Pas

Pirats Sound Sistema

osteguna

2D1

Neubat

Joan zaitez gorputza prestatzen!!!

Aurtengo Aste Nagusian ez duzu aspertzeko astirik izango. Hau Pittu Hau-k egundoko egitaraua prestatzen dabil. Ekitaldi guztiak gure txosnan eta inguruetan burutuko dira.

Hasi apuntatzen:

Domeka (abuztuaren 15ean)

Arratsaldean, GO txapelketa, ikasi jolasten txinatarren antzinako jokia.

Astelehena (abuztuaren 16an)

Beti bezala, hau egun indartsuena da. Goizeko poteoa 12etan hasiko da, eta ondoren bazkaria txosnan. Aurten, bigarren aldiz, EUSKARA SARIA euskararen aldeko egindako lanagatik norbait omenduko dugu. Eta gero, konpartsero sariak, *Play Back*, eta.... *Ginkanarekin* Areatza osoa hankaz gora ipiniko dugu. Bukatzeko, bertso-triki-kalejira!!!

Eguestaena (abuztuaren 18an)

Bertso ikastaroa (17:30).

Eguena (abuztuaren 19an)

Dantza ikastaroa (12:30-14:30).
Ikurrinaren omenaldia arratsaldean.

Barikua (abuztuaren 19an)

Uraren eguna arratsaldean.

Zapatua (abuztuaren 21ean)

Konpartsen arteko **BAZKARIA**, eta gero...
Txupinazo alternatiboa!!! Jaiak herriarentzat!!!

Asteazkena (16tik 20ra)

EUSKALTEGI berezi berezia antolatuko dugu (12:30-14:30); euskara ez dakitenek ez dute aitzakiarik izango.

Eta aste osoan zehar, Argazki-txapelketa, eguneroko gaueko poteoa... eta txandak!!! Hori dena egitarauaren barruan; hortik kanpo zeuk nahi duzun guztia: alkohola, sexua (mirakulutxo eskaiozue Begoñako Andramariri), drogak, *rock and rolla*...